

BALIO PROPOSAMENA



Ez zaizue gertatu supemerkatuan barazkien sekziora joatea eta produktu guztiek plastiko gehiegi dutela ikustea? Eta sukaldatzeko denborarik ez izatea? Lasai egon zaitezket, guk arazo horientzako konponbidea eskainiko dizuegu!



Agian ez zenekiten, baina urtero 8 milioi tonelada plastiko iristen dira itsasora. Kantitate hau eta Eiffel Dorrearen pisua bider 800 berdinak dira. Hori ekiditeko, Emmejjota enpresa sortu dugu.

Guk eskaintzen duguna jasangarritasuna sustatzea da, gure produktuetan plastikoa murriztuz. Izan ere, hauek erosotasuna ematen dute, denbora aurrezteko egokiak baitira. Gainera, bertako ondasunak kontsumitzearekin batera, ohitura osasuntsuak izaten laguntzea bermatzen dugu. Hortaz, jasangarritasunean sinisten baduzu, hau zure entsalada da.

Hau guztia lortzeko, ECOFROLADA produktua sortu dugu. ECOFROLADA km 0-ko osagai biologikoekin osatutako entsalada bat izateaz gain, ontziki jangarri batetan aurkezten da. Azken hau pasta frollaz egina dago, produktu jasangarri batez; honek lortzen du gizarte erantzukizuna izatea plastikoa gutxitzen duelako. Gainera, banbuz egindako mahai-tresna biodegradagarri bat du bertan, beraz oso eramangarria da.

Laburbilduz, guk aurkezten dizuegun ondasuna Ecofrolada izena du, eta bere ontzikia jatea ahalbidetzen duen entsalada bat da.

